

GEP-MUko ikasleak Euskal Encounter 08 topaketan sarituak

2008/07/30

WILLIX taldea, *Jon Goenetxea, Igor Iburguren, Unai Elordi eta Unai Zabarte*, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko informatika eta elektronikako ikasleek osatutako taldeak, software askean programazio bizkorreko Free and Open Source Software lehiaketa irabazi du Euskal Encounter 08an. Saria Asus EEE-PC ultra ordenagailu eramangarria, sariketa honen babesle den Entel enpresak emandakoa izan da.

Euskal Encounter-a ordenagailu zale eta profesionalen bilera zabala da, non esperientziak elkarbanatu eta egun gutxi batzutan informatikarekin loturik dagoen edozer ekintzatan murgiltzeko asmoa duten.

Estatuko party-rik zaharrena bere hamaseigarren edizioa ospatu du Bilbao Exhibition Centre-n 2008ko uztailaren 24tik 27ra.

- 4.096 ordenagailu sarean konektatuta.
- 5.700 partehartzaitik gora.
- 8 Gb/s-ko Internet konexioa.
- BECeko 35.000 metro karratu baino gehiago erabiliak.
- 50.000 eurotik gora saritan.
- 4 eguneko jardun etengabea.



Euskal Encounter 08